

'Tximeleten mihia' eta Manuel Rivasen galiziar bizi-zatiak, euskal letretara

Idazle galiziarren 'Zer nahi nauk, Amore?' bolumena euskaratu du Juan Garzia itzultzaileak, Erein, Igela eta EIZI Eren arteko elkarlanari esker

IKER ELDUAYEN
Donostia

Haur baten begirada errugabea, faxismoaren itzala Galiziako herri txiki batean eta Errepublikako hezkuntza sistemaren ametsa galdua. Donostiako Konstituzio plazak eta Udal Liburutegiko apalek Galiziako paisaia, memoria eta sentimenduak hartu zituzten atzo magalean. Manuel Rivas idazle galiziarren 'Zer nahi nauk, Amore?' liburua aurkeztu zen atzo Donostiako 51. Liburu Azoka ospatzen ari dela, literaturak hizkuntzen arteko zubia eraikitzeko duen indarra agerian utziz. Ekitaldian Isabel Etxeberria EIZIEko presidentea, Inazio Mujika Erein eta Igela argitaletxeen ordezkaria, eta Juan Garzia Garmendia lanari euskarazko arima eman dion itzultzailea elkartu ziren. Argitalpen berria, Eusko Jaurilaritzaren Kultura Sailaren babesarekin, Literatura Unibertsala bildumako 194. zenbakia da jada.

Elkarlan horren azken fruituak nazioarteko ahots gailen baten uni-

bertsoa dakar euskarara. Manuel Rivas (A Coruña, 1957) gaur egungo galiziar literaturak duen enbaxadorerik preziatuena da. Kronika sozialaren eta fikzioaren arteko oreka zailean maisu, kazetaritza lanetan ibilbide oparoa osatu du, El País egunkarian bereziki, eta bere sormen lanek genero guztiak landu dituzte: ipuina, eleberria, poesia zein saiakera, dozenaka hizkuntzetara itzuli direnak nazioartean. Bere ibilbideko mugarrien artean 'Un millón de vacas' (1989) edota 'O lapis do carpinteiro' (1998) aurkitzen dira, baina orain aurkeztutako tituluarekin lortu zituen sari eta ezagutza handienak Rivasen idazkerak Galiziako gizartearen aldaketak, landa-eremuko paisaiak eta memoria historikoa uztartzen ditu, nostalgiaz eta ironiaz jantziz.

Baina, nola ekarri horren lurralde zehatzeko mundua euskarara? Hori-xe izan da Juan Garzia Garmendia (Legazpi, 1955) itzultzailearen eronka nagusia. Garziak berak aitortu zuen bere ibilbidean ezohiko mugaria izan dela. «Lehenengo aldia da bizirik dagoen autore bat itzultzen dudala, baita ere autoreari baino gazteagoa dela». Liburua osatzen duten hamabost narrazio laburren inguruan, haien sarkotasuna nabarmendu nahi izan zuen: «ez dira ipuin luzeak, baina bai dira zabalak». Horren erakusgarri argiena 'Tximeleten mihia' (La lengua de las mariposas) testu enblematikoa da,



Juan Garzia itzultzailea, atzo Donostian 'Zer nahi nauk, Amore?' libururekin. GORKA ESTRADA

Zer nahi nauk, Amore?
Manuel Rivas

Itzultzailea: Juan Garzia.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 160.
Prezioa: 18 euro.



Jose Luis Cueda zinemagileak 1999ko film ahaztezina egiteko erabilitakoa.

Ipuinak altxamendu frankista herri txiki batera nola iritsi zen kontatzen du haur baten begirada soil eta errealistatik. Itzultzailearen hitzetan, «benetan liluragarria da nola kontatu daitekeen hainbeste, hain hitz gutxitan». Egiturari dagokionez ere, bolumenak ez du kronologiarik jarraitzen, bizitzaren magalean bertan funtsatzen baita: «Ez dago mitifikaziorik, ezta

idealizaziorik. Liburua bera ez dago bereziki antolatuta, lehenengo ipuina amaiera da, eta azkenekoa, hasiera».

Garapen luzea

Hari beretik, Inazio Mujika editoreak testuinguru historikoaren eta gizartealdaketaren garrantzia azpimarratu zuen aurkezpenean. Rivasen testuek hezkuntzari egiten dioten gorazarra-ri tiraka, argi adierazi zuen «Errepublikaren gauzarik onena hezkuntza sistema» izan zela, liburuko lehen orrialdeetan hain modu hunkigarrian islatzen den ideal hura, hain zuzen. Mujikak, halaber, liburuaren edizio fisikoari erreparatu zion, diseinuaren eta edukia arteko lotura indartuz. Azaleko irudi misteriozua Alain Urrutia artistaren obra bat da eta, editoreak zehaztu zuenez, «ipuin batekin dago

lotuta», 'Oso zoriontsuak izango zarete' kontakizunarekin hain zuzen ere.

Alde horretatik, argitalpenak 160 orrialdeko bolumenean, bereziki aztertzea merezi duten hiru garapen luze gordetzen ditu: lehen aipatutako 'Tximeleten mihia', 'Saxo bat lainopean' eta 'Lore zuriak saguzarentzat'. Azken honek, narkotrafikoaren inguruko galiziar noir estiloko kronika baten bidez, 1936ko gertakarien pareko irudi-
men-indar eta tentsio itzela erakusten du garai berriagoetan. Kulturaren eta nortasunaren galera, ondasun materialen diktadura edota beldurraren moztarrok marrazten dituen edizio hau jada salgai dago liburu-dendetan, 18 euroko prezioan, Galiziako olatuen eta euskal letren arteko topaketa berezi honetaz gozatu nahi duen oro-
rentzat.